



**HARRERAKO BALIABIDEEN GIDA**





LELOA



# AURKIBIDEA

1

## ERROLDATZEA

4

2

## OSASUN-LAGUNTZA

- OSASUN-LAGUNTZA ESKATZEA
- LARRIALDIKO OSASUN-LAGUNTZA
- FARMAZIAK
- BESTE OSASUN-BALIABIDE BATZUK

5

3

## GIZARTE-BALIABIDEAK

- GIZARTE ZERBITZUAK
- ETXEBIZITZA
- LAN-ESKUBIDEAK ETA ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

8

4

## HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZAK IKASTEAK

- HAURREN HEZKUNTZA
- HELDUEN HEZKUNTZA (HHE) ETA GAZTELANIA IKASTEAK
- TITULUAK HOMOLOGATZEA
- EUSKARA

12

5

## KULTURA, KIROLA Y AISIA

14

- KULTUR LEIOA
- LIBURUTEGIA
- ATERPE LEIOA GAZTEGUNEAK
- AUZO-GELAK
- ELKARTEAK
- KIROLA

6

## BESTELAKO INFORMAZIOA

17

- LARRIALDIETAKO TELEFONOA
- HERRITARREN SEGURTASUNA ETA GUARDIAKO EPAITEGIA
- GENERO-INDARKERIA
- DISKRIMINAZIO-EGOERAK SALATZEKO BALIABIDEAK
- DOAKO AÑOLKULARITZA ETA ORIENTAZIO JURIDIKOA

7

## LEIOA HURBIL – LEIOA ZABALIK

21

- HERRITARRENTZAKO ARRETA ZERBITZUA (HAZ)
- UDALA INTERNETEN
- GARRAIOBIDEAK

# 1 ERROLDATZEA

Erroldatzeak Udal Erroldan izena ematea esan nahi du. Erregistro horretan Leioako bizilagun guztiak agertzen dira. Pertsona guztiak erroldatu daitezke, nazionalitatea, administrazio-egoera, erregularra zein irregularra, eta adina edozein izanda ere.

## AINTZAT HARTU BEHARREKO KONTUAK:

- Udalerrian bizi diren pertsonen erregistro honetan inskribatzeko betebeharra dute.
- Inork ezin du zu erroldatzea eragotzi: zure eskubideak urratzen ditu eta udalari ez dio uzten hiri-profila zein den jakiten.
- Kasu batzuetan, izena ematea alde aurreko baldintza da zerbitzu publiko jakin batzuk lortzeko (larrialdikoa ez den osasun-laguntza, hezkuntza, LANBIDEn izena ematea).

Erroldatzeko arazorik izanez gero, Gizarte Zerbitzuetara jo dezakezu zure egoera balioets dezaten.

## ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DA?

- Identifikazio-agiri ofiziala (NAN, AIZ edo pasaporte, indarrean) eta haren fotokopia.
- EBko herritarrak: EBko herritarren erregistro-ziurtagiria.
- Etxebizitzaren okupazioa egiaztatzen duen agiria (jabetza-eskritura, errentamendu-kontratua, argi-hornidurarako kontratua, ura eta abar) eta haren fotokopia.

## NON ESKATU UDAL ERROLDAN IZENA EMATEA?

Herritarren informazio eta arretarako bulegoetan. (ikus 21 or.)

## OSO GARRANTZITSUA:

Europar Batasuneko herrialde bateko herritarra ez den atzerritarrak, iraupen luzeko bizileku-baimena duenak izan ezik, Udal Erroldan duen inskripzioa berritu beharko du inskribatu eta bi urte igaro baino lehen. Hala egiten ez badu, Udalak baja eman diezaioke alde aurreko entzunaldirik gabe.



# 2 OSASUN-LAGUNTZA

Egunean 24 ordu eta urtean 365 egun.



**944 203 020 - 902 203 020**

Internet bidezko hitzordu-sistema: **[www.osakidetza.euskadi.net](http://www.osakidetza.euskadi.net)**



## OSASUN-LAGUNTZA ESKATZEA

Beren administrazio-egoera erregularizatuta ez duten atzerritarrek gainerako pertsonen osasun-estaldura bera dute. Horretarako, **Osasunaren babes integralerako programan** sartzeari eskatu beharko dute. Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea.
- Estatuan hiru hilabete baino gehiago igaro izana (edo gutxienez hiru hilabetez Schengen eremuko herrialderen batean bizi izana eta bisa edukiz gero, hura iraungi izana).
- Beren baliabide ekonomikorik ez edukitzea eta beste edozein bidetatik osasun-babes publikoko sisteman sartzerik ez izatea.

Eskabidea etxetik hurbilen dagoen anbulatorioan egin behar da, eskaera-orri bat betez. Orri hori osasun-zentroan bertan emango zaio eskatzaileari, eta, horrekin batera, pasaportearen originala eta kopia) eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

Osasunaren babes integralerako programa horretan sartzeko eskaera egin izanaren egiaztatzea bera baliagarria izango zaio eskatzaileari Osakidetza zerbitzuak lortu ahal izateko hiru (3) hilabeteko epean.

## GARRANTZITSUA:

Edozein dela ere erroldatuta zauden aldia eta administrazio-egoera, bekarrezkoa da beti osasun-estaldura egotea beti honako egoera hauetarako:

- Larrialdiak eta horietatik eratortzen dena.
- Emakumeak haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean.
- 18 urtetik beherakoak.
- Gaixotasun infekzio-kutsakorrek.
- Gaixotasun mentalk.
- Gaixotasun kronikoak.



# 2

## OSASUN-LAGUNTZA

Hiru (3) hilabeteko epe hori igaro baino lehen, Osakidetzak gutun baten bidez jakinarazi beharko dio erantzuna eskatzaileari. Gutun horretan, adierazitako baldintzak betetzen badira, osasun-zentro bat eta familia-mediku bat esleituko zaizkio, eta Osakidetzako prestazio guztiak jaso ahal izango du.

**Familia-mediku bat esleitzen duen gutun horrek Osakidetzako zerbitzuak eskuratzeko balioko du.**

### OSASUN-TXARTEL INDIBIDUALA (OTI)

**Osasun-txartela lehen aldiz eskuratzeko, erroldatuta zauden lekuko osasun-zentrorra joan behar duzu. Beharrezkoa izango da bizileku-baimena izatea.**

### ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DA?

**(originala eta fotokopia)**

- Errolda-ziurtagiria.
- NAN/AIZ.
- Osasun-laguntzarako eskubidea egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) emana. Hementxe eskatzeko aukera dago

<https://w6.seg-social.es/das/>

**Inicio?ConsultarDerecho=Consultar+derecho+asistencia+sanitaria**

- Adingabeak: familia-liburua, adingabea eta GSINk esleitu dion titularra jasotzen dituen, edo, jaioberria bada, jaiotza-inkripzioaren egiaztatzea, erregistroa ospitalean izapidetu bada.

Kontsultak: [tis.bizkaia@euskadi.eus](mailto:tis.bizkaia@euskadi.eus)

### LEIOAKO OSASUN ZENTROA

Ikea Barri plaza, 1 - 94 600 70 01

### AREETAKO OSASUN ZENTROA

Bidebarrieta,10-12 (Getxo) - 94 600 71 70

### LARRIALDIKO OSASUN-LAGUNTZA

Pertsona guztiek dute larrialdiko osasun-laguntzarako eskubidea, nahiz eta osasun-laguntzarako eskubidea aitortuta ez izan. Ohiko ordutegian, 08:00etatik 20:00etara, larrialdi-kasuak artatzen dituzte osasun-zentroek (Leioakoak ere bai). Ordutegi horretatik kanpo, Areetako Etengabeko Arreta Gunera (EAG), Urdulizko Ospitalera edo Gurutzetako Ospitalera joan behar da.

### ETENGABEKO ARRETA GUNEA

Bidebarrieta, 10-12  
94 600 71 70

### GURUTZETAKO OSPITALEA

Cruces plaza, s/n (Barakaldo)  
94 600 60 00

### URDULIZKO OSPITALEA

Goieta, 32 (Urduliz)  
94 613 48 00



# 2 OSASUN-LAGUNTZA

## FARMAZIAK

Sendagaiak farmazietan erosten dira. Horietako askok mediku-errezeta bat behar dute (sendagileek egina).

Osasun-laguntzarako eskubidea aitortua duen ala ez, sendagaiaren balioaren ehuneko bat soilik ordaindu beharko du (PSParen % 40), edo, kostu osoa ordaindu beharko du.

- Farmazien zerrenda eta guardiako farmaziak:  
[www.cofbizkaia.net](http://www.cofbizkaia.net)



## BESTE OSASUN-BALIABIDE BATZUK

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ODONTOLOGIA FAKULTATEA

Leioako Campusa  
Sarriena auzoa z.g. 946 012 941 - 946 012 942

### MUNDUKO MEDIKUAK

Gizarte- eta osasun-arloko integrazio-programa.  
Bailén kalea 1 (Bilbao)  
944 790 322





# 3

# GIZARTE-BALIABIDEAK

## GIZARTE ZERBITZUAK

Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuen helburu nagusia da Leioako herritar guztiei gizarte-zerbitzuak lortzen laguntzea, baldin eta, hainbat arrazoiengatik, premia-egoeran badaude eta laguntza behar badute beren autonomiaren, integrazioaren eta/edo gizarte-ongizatearen alderdiak hobetzeko.

Gizarte Zerbitzuek balioetsi, informatu eta orientatuko dituzte hala eskatzen duten pertsona guztiak, errolatuta egon zein ez, beren gizarte-premiei erantzuten saiatzeko.

### XEDE HAUEK DITUZTE:

- Norberaren autonomia sustatzea, eta mendekotasunak eragindako beharrizan pertsonalei eta familia-beharrizanei aurrea hartzea eta erantzutea.
- Babesgabetasun-, bazterketa- eta/edo larrialdi-egoerek eragindako premiei aurrea hartzea eta erantzutea.
- Pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

### HITZORDUA ESKATU BEHAR DA:

#### GIZARTE ZERBITZUAK

Inaurratzaga,1 - 94 480 13 36  
[gizartezerbitzuak@leioa.net](mailto:gizartezerbitzuak@leioa.net)

**Aldibereko itzulpen zerbitzua dago (telefono bidez) behar dutenentzat.**

## ETXEBIZITZA

Gizarte-babeseke etxebizitzak alokatzeko eta erosteko zerbitzu publiko bat dago. Halako etxebizitza eskuratzeko Etxebiden, Euskal Etxebizitza Zerbitzuan, eman behar da izena.

Baldintza guztiak eta izena nola eman kontsultatzeko:

### ETXEBIDE

Kale Nagusia, 85 (Bilbao) 012 (Zuzenean)  
[www.etxebide.euskadi.eus](http://www.etxebide.euskadi.eus)

### OSO GARRANTZITSUA:

Atzerritarren kasuan, bizileku-baimen bat eduki behar da indarrean. Europar Batasuneko atzerritarren kasuan, Atzerritarren Erregistro Zentraleko inskripzio-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) adierazten duena.





# GIZARTE-BALIABIDEAK

## LAN-ESKUBIDEAK ETA ENPLEGURAKO BALIABIDEAK

Langile guztiek dituzte lan-eskubideak. **bizileku- eta lan-baimenik** ez duten langile atzerritarrak ez daude egoera erregularrean, baina lan-eskubideak dituzte.

Europar Batasuneko kide ez den herrialde bateko atzerriko jatorria duten pertsonak lan egin dezakete Espainian besteren kontura (enplegatzaile batek kontratatuta) edo norberaren kontura (autonomo gisa), baldintza jakin batzuetan. Horretarako, lan-baimena beharko dute beti.

**Informazio gehiago: ikus Doako aholkularitza eta orientazio juridikoa (20 or.)**

Lan egin ahal izateko 18 urte baino gehiago izan behar dira, baina 16 urtetik aurrera gurasoen edo tutoreen baimenarekin lan egin daiteke.

Lan-harremanean edo lan-kontratuan ezohikotzat jotzen den edozein gorabehera, hala nola gehiegizko ordutegiak, soldata-diskriminazioak, diru-zenbatekoak erreklamatzeko, istripu-arriskua edo bidegabeko kaleratzeak, sindikatuei jakinaraz dakieke, Lan Ikuskaritzan edo justizia auzitegietan eskubideak erreklamatzeko.

## LAN IKUSKARITZA

Kale Nagusia, 50 (Bilbao)  
944 398 016

## - SALAKETAK LAN IKUSKARITZAN -



[www.euskadi.eus/arbitraje\\_denuncia\\_reclamacion/inspeccion-de-trabajo/web01-tramite/es/](http://www.euskadi.eus/arbitraje_denuncia_reclamacion/inspeccion-de-trabajo/web01-tramite/es/)

## ZER DA SINDIKATU BAT?

Beren interes sozial, ekonomiko eta profesionalak defendatzen eta sustatzen diharduten langileek osatutako erakundea da.

**CC.OO CITE:** Uribitarte, 4 (Bilbao) / 944 243 424

**CNT:** María Muñoz, 10 (Bilbao) / 944 157 962

**CGT-LKN:** Bailén, 7 (Bilbao) / 944 169 540

**ELA:** Areeta etorbidea 2 (Getxo) / 946 020 450  
Barrainkua, 13 (Bilbao) / 944 037 700

**ESK-CUIS:** Concha jeneralaren kalea, 12 (Bilbao) / 944 101 425

**LAB:** San Agustin plaza, 6 (Erandio) / 944 670 156  
Errekalde zumarkalea, 62 (Bilbao) / 944 706 900

**UGT:** Colón de Larreátegui, 46 (Bilbao) / 944 670 156

**USO-LSB:** Pablo Picasso, 2 (Bilbao) / 944 441 566





# 3

# GIZARTE-BALIABIDEAK

## **GIZARTE-ESKUBIDEEI ETA ETXEKO LANARI BURUZKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUAK:**

### **ETXEKO EMAKUME LANGILEEN ELKARTEA (ELE):**

Etxeko emakume langileen eskubideak sustatzeko eta defendatzeko erakundea.

Pilota kalea 3 (Bilbao). Astearteetan eskaintzen dute arreta, 16:00etatik 19:00etara. Ez da hitzordurik behar. Presako harremanetarako: **[ath-ele@hotmail.com](mailto:ath-ele@hotmail.com)**

**MUJERES CON VOZ ELKARTEA:** Askotariko emakumeen arteko topaketa-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-gunea. Amezti kalea 6, 1., 8 (Getxo) / 655 603 809  
**[contacto@mujeresconvoz.com](mailto:contacto@mujeresconvoz.com)**

**ETXEKOTU GABEKO EMAKUME LANGILEAK:** Etxeko emakume langileen eskubideen defentsaren aldeko emakumeen kolektiboa. Aholkularitza juridikoko postontzia:  
**[www.interdependientes.org/contact](http://www.interdependientes.org/contact)**

## **LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA**

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Zerbitzua da, enplegua bilatzeko prozesuan laguntzeko eta orientatzeko. Izena emateko ez da beharrezkoa bizileku- eta lan-baimenik izatea. Erroldatze-ziurtagiria eta indarrean dagoen pasaporte baina ez dira behar.

Lehen enplegua bilatzen ari direnei, langabezian daudenei, lanera itzuli nahi dutenei, eta lanean ari eta enplegua aldatu nahi dutenei zuzenduta dago. Lanpostuak bete behar dituzten enpresei ere eskaintzen dizkie zerbitzuak, eta enplegua sortzeko aholkularitza eta laguntza ematen dute.

Langabe egoera Lanbideren bidez ziurtatzen da, eta baliteke enplegatzailearentzat oso baliagarria izatea kontratuan hobariak lortzeko.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta (**DBE**), etxebizitzarako prestazio osagarria (**EPO**) eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (**BGD**) kudeatzen ditu.

**DBE** hileko prestazio ekonomiko bat da, baliabide nahikorik ez duten pertsonen eta familien oinarritzko beharrei erantzuteko, eta lana aurkitzen laguntzen die.

## **OSO GARRANTZITSUA:**

**DBE jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan hiru (3) urtez erroldatuta egotea.**

**BGD jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Espainian urtebeteko legezko bizilekua edukitzea.**

# 3 GIZARTE-BALIABIDEAK

Kasu batzuetan, **DBE**arekin batera, **EPO** bat jaso ahal izango da, ohiko etxebizitzaren alokairu-gastuei ordaintzeko.

**BGD** bakarrik bizi diren edo bizikidetzaren batean sartuta dauden eta oinarrizko premiak asetzeko oinarrizko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen pobrezia-arriskua eta gizarte-bazterkeria prebenitzera bideratutako prestazio ekonomikoa da.

## LANBIDE

Negubide, 1 (Getxo)

944 033 140 Hitzordua: 945 160 600 / 630 305 452

[www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus)

## SEPE - ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Langile eta enpresentzako zerbitzuak eskaintzen ditu. Besteak beste, langabezia-prestazioak izapidetzeaz eta ordaintzeaz eta langabezia-prestazioaren ordainketa metatuaz arduratzen dira (ordainketa bakarra eta atzeritarren borondatezko itzulerarako laguntza).

## SEPE

Negubide, 1 (Getxo)

901 119 999 / 944 985 958

[www.sepe.es](http://www.sepe.es)

## BEHARGINTZA

Ekonomia Sustapen eta Garapen, Prestakuntza eta Enplegu Sailari ematen zaion izena da.

Jardun-arlo nagusiak:

- **ENPLEGUARI LAGUNTZEA**, langabeei laguntza emateko zerbitzu-sare oso baten bidez: lan-eskaintzak, prestakuntza, enplegu-programak (Hazilan, Udal Gaztedi beka, tokiko enplegu-plana).

- **LANEKO ORIENTAZIOA ETA BITARTEKARITZA**. Zerbitzu hori enplegu-eskatzaleei edo enplegua hobetzen daudenei eskaintzen zaie, enplegarritasuna hobetzeko, modu pertsonalizatuan laneratzera hurbiltzeko tresnen eta ekintzen etengabeko diseinuaren bidez.

- **ENPRESAK ERATZEN LAGUNTZEA**. Zerbitzu integrala ematen zaie ekintzaileei: abiarazte ibilbidea, autoebaluazioa, laguntzak eta finantzaketa, prestakuntza, enpresen mintegia...

- **ENPRESEI ETA MERKATARIEI LAGUNTZEA**. Aholkularitza, kontsulten arreta, Leioa Bidean, prestakuntza, laguntzak eta dirulaguntzak...

## BEHARGINTZA

Mendibil, 3

944 004 195

[www.behargintzaleioa.eus](http://www.behargintzaleioa.eus)



# 4

## HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZAK IKASTEIA

### HAURREN HEZKUNTZA

Irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa da 6 eta 16 urte bitarteko pertsona guztientzat, eta bi alditan banatzen da: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Haur Hezkuntza (0-6 urte) borondatezkoa da eta bi ziklotan banatuta dago:

- Lehenengoa, 0 eta 3 urte bitartekoa\* (hautzaindegi pribatuak edo Haurreskola partzuergoa).
- Bigarrena, 3 eta 6 urte bitartekoa (dohainik).

\* *Haur Hezkuntzako lehen zikloaren barruan, Leioako ikastetxe publiko eta pribatu guztiek dute 2 urteko haurrentzako gela bat.*

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa honela banatzen da: Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta Goi Mailako Heziketa Zikloak. Doako eskaintza zabala dago.

Leioan badira ikasketa horiek egiteko ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak daude. Horietako edozein hautatzeko aukera dago, betiere plaza librerik badago. Zentro mistoak dira (neskak eta mutilak).

Ikastetxeaz gain, hizkuntza-eredua ere aukeratu daiteke. Hiru eredu daude: A eredu (funtsean, gaztelaniaz eta euskara irakasgai gisa), B eredu (gutxi gorabehera irakasgaien erdia gaztelaniaz eta beste erdia euskaraz) eta D eredu (funtsean, euskaraz eta gaztelania irakasgai gisa). Kasu guztietan hizkuntza bat gehiago ere ikasten da (ingelesa) eta kasu batzuetan beste bat (frantsesa).

Ikastetxe guztiei buruzko informazio zehatza hemen kontsultzeko modua dago:



[www.leioa.net/es/vive\\_la\\_ciudad/educacion/Educacion.html](http://www.leioa.net/es/vive_la_ciudad/educacion/Educacion.html)

### HELDUEN HEZKUNTZA (HHE) ETA GAZTELANIA IKASTEIA

Helduen Hezkuntzako Ikastegiak askotariko prestakuntza-programa eskaintzen du (alfabetatzea, bigarren hezkuntzako graduatua, euskara eta abar). Gainera, atzeritarrentzako gaztelania hitz egiten ikasteko ikastaroak ere baditu.

#### HHE

Langileria, 106, 3º  
944 806 110 / 944 646 335

<https://cepaleioahhi.weebly.com/lamiako.html>

#### OSO GARRANTZITSUA:

Matrikula epe arruntetik kanpo egiteko, eta informazio gehiago lortzeko edo arazoak konpontzeko, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara jo behar da (Ikasle Etorkinak onartzeko Zerbitzua). Kale Nagusia 85, 4. solairua, Bilbao  
944 031 069

# 4 HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZAK IKASTEA

## TITULUAK HOMOLOGATZEA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak atzerrian egindako unibertsitateaz kanpoko titulu eta ikasketak homologatzen ditu.



[www.euskadi.eus/homologacion-o-convalidacion-de-titulos-o-estudios-extranjeros-no-universitarios/web01-a3hakade/es/](http://www.euskadi.eus/homologacion-o-convalidacion-de-titulos-o-estudios-extranjeros-no-universitarios/web01-a3hakade/es/)

Unibertsitateko titulu eta ikasketen homologatzeko kasuan, Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioa izango da organo eskuduna.



[www.educacionyfp.gob.es/va/servicios-al-ciudadano/catalogo/gestion-titulos/estudios-universitarios/titulos-extranjeros/homologacion-educacion-superior.html](http://www.educacionyfp.gob.es/va/servicios-al-ciudadano/catalogo/gestion-titulos/estudios-universitarios/titulos-extranjeros/homologacion-educacion-superior.html)

KOSMOPOLIS elkartearen bidez, atzerrian egindako tituluaren homologazioari buruzko doako aholkularitza dago:

### KOSMOPOLIS

Alangoeta, 8 (Getxo)  
688 605 551

[www.kosmopolis.es](http://www.kosmopolis.es)  
[kosmopolis@live.com](mailto:kosmopolis@live.com)

## EUSKARA

Leioan bi hizkuntza ofizial hitz egiten dira, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala: euskara eta gaztelania. Euskaraz hitz egiten jakitea eta erabiltzea balio erantsia da gainerako herritarrekin harremanetan jartzeko.

Udalean euskara zerbitzu bat dago, euskara ikastea eta erabiltzea sustatzen duena.

Askok eskolan ikasten dute euskara, eta beste askok euskaltegietan, euskararen irakaskuntzan espezializatutako zentroak baitira. Leioan 16 urtetik gorako pertsonentzako bi euskaltegi daude.

### MASTITXU EUSKALTEGIA (UDAL EUSKALTEGIA)



Iparragirre etorbidea, 78  
944 640 002

[www.euskaltegieioa.com](http://www.euskaltegieioa.com)

### LEIOAKO LAMIA AEK EUSKALTEGIA



Luis Bilbao Libano doktorea, 8  
944 646 063

[lamia@aek.eus](mailto:lamia@aek.eus)





# 5

# KULTURA, KIROLA Y AISIA

Leioako Udalak webgune espezifiko bat du, eta bertan zehazten dira herrian erabiltzeko aukera duzun kultura-zerbitzu eta -jarduera guztiak: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

## KULTUR LEIOA

Kultur Leioa Leioako Udaleko Kultura Sailaren zentro publikoa da, eta kultura eta sorkuntza sustatzen, babesten eta zabaltzen ditu.

Kultur Leioak 7.000 metro karratu baino gehiagoko azalera erabilgarria du, zazpi solairutan banatuta. Solairu horietako bi zero kotatik behera daude. Horietan guztietan, Kultur Leioak jarduera eta zerbitzu egitarau zabala eskaintzen du.

Auditoriuma dagoen solairuan, hainbat motatako jarduera eta ekitaldietarako hainbat gela edo areto eta gune daude, hala nola entsegu-gelak eta ambigú-a izenekoa, non enpresek ere ekitaldi pribatuak egiteko modua duten. Kultur Leioako sarbidearen aurrean Erakusketa Aretoa dago.

Kultur Leioan KZ Gunea, Euskara Zerbitzua edo Kultura Programazio eta Zabalkunde Saileko bulegoa ere badaude. Zentroak Hitzaldi Aretoa du, prentsurrekoetarako ere erabiltzen dena.

Nabarmentzekoa da bosgarren solairuaren erabilera. Solairua urte osoan egiten diren tallerretarako erabiltzen da.

Jardueren agenda ikusteko:

[www.kulturleioa.com/agenda/](http://www.kulturleioa.com/agenda/)

## KULTUR LEIOA

Jose Ramon Aketxe Plaza, 11

Tfno.: 946 072 570

[infokultur@leioa.net](mailto:infokultur@leioa.net)





# KULTURA, KIROLA Y AISIA

## LIBURUTEGIA

Liburutegia Kultur Leioaren bi solairutan banatuta dago. Bigarren solairuan Haur eta Gazteentzako Liburutegia dago, eta bertan atal espezifiko batzuk daude.

Horrez gain, Liburutegiak bigarren solairuan 0 eta 4 urte bitarteko haurrentzako gune bat du, non, heldu batek lagunduta, lehen harremana duten liburuekin.

Bada erabiltzaileen eskura hemeroteka bat egunkari, aldizkari eta komikiak dituena, mediateka bat eta i-gune bat Interneten sartzeko eta Katalogo Bibliografiko Orokorrean kontsultak egiteko.

Azkenik, hirugarren solairuan Liburutegiaren Atal Orokorra dago.

## LIBURUTEGIA

Orduetgia:  
astehenetik ostiralera, 09:00etatik a 20:00etara.  
Jose Ramon Aketxe Plaza, 11 – 2º  
Tel. 94 607 25 74  
**[liburutegia@leioa.net](mailto:liburutegia@leioa.net)**

## ATERPE LEIOA GAZTEGUNEA

Erabilera anitzeko ekipamendua da, Leioako gazteentzat irekia, eta Leioako gazteen eskura jartzen ditu jolas-, ikasketa-, informazio-, topaketa- eta abarrerako guneak.

50 lagunentzako ikasketa-gela bat, ordenagailu-gela eta elkarte-gela bat ditu. Gazteentzako informazio-zerbitzuak eta *Leihosex* sexualitateari buruzko aholkularitza ere baditu.

Gazteguneko ordutegiari eta jarduerari buruzko informazio gehiago:



**[www.leioa.net/es/vive\\_la\\_ciudad/gaztegunea/Aterpe+Leioa+Gaztegunea.html](http://www.leioa.net/es/vive_la_ciudad/gaztegunea/Aterpe+Leioa+Gaztegunea.html)**

## ATERPE LEIOA

Aldapabarrena, 2  
**[gazte@leioa.net](mailto:gazte@leioa.net)**





# 5

# KULTURA, KIROLA Y AISIA

## AUZO-GELAK

Leioako Udaleko Kultura Sailak lau kultur gune ditu Pinueta, Txorierri, San Bartolome eta Lamiakoko auzoetan, eta horietako batzuk herriko kultura-elkartek kudeatzen dituzte.

Esteka honen bidez, kultura-gune horietako bakoitzaren jardueren programazioa ikusteko aukera dago:



<http://www.kulturleioa.com/agenda/kulturleioa/auzo-gelak/?lang=es>

## LAMIAKOKO KULTUR ARETOA

Gabriel Aresti, 3  
Tel.: 944 648 650

## SAN BARTOLOMEKO KULTUR ETXEA

San Bartolome, 1  
Tel.: 944 608 952

## PINUETAKO KULTUR ARETOA

Maiatzaren Bata, 1  
Tel.: 944 646 722

## TXORIERRIKO KULTUR ARETOA

Txorrieri, 51 behe solairua  
Tel.: 944 800 357

## ELKARTEAK

Leioako elkarten zerrenda:

[www.kulturleioa.com/agenda/actividades/elkartek](http://www.kulturleioa.com/agenda/actividades/elkartek)

## KIROLA

Leioak hainbat instalazio ditu herrian kirola sustatzeko.

## KANDELAZUBIETAKO KIROLDEGIA

Iparragirre etorbidea, 76  
Tel: 944 648 394

## SAKONETAKO KIROLDEGIA

Sabino Arana etorbidea, 77  
Tel 944 008 059 [uki.idmleioa@leioa.net](mailto:uki.idmleioa@leioa.net)

## SARRIENAKO KIROL-INSTALAZIOAK

Sarriena auzoa z.g.  
Tel: 944 915 250

## TORRESOLOKO KIROL-INSTALAZIOAK

Eusko Gudariak z.g.  
Tel: 946 004 475 [pinosolokirol@guedan.com](mailto:pinosolokirol@guedan.com)

## ONDIZKO PABILOIA

Ondizko plaza, 1

Esteka honetan Leioako kirol-elkarten zerrenda dago ikusgai:

<http://www.leioakiroldegia.net/deporte-en-leioa>

# 6

## BESTELAKO INFORMAZIOA

### 112 LARRIALDIETAKO TELEFONOA

Larrialdi bat gertatuz gero, 112 doako telefonora deitu behar da. Bertatik, kasuaren arabera, dagokion zerbitzuari jakinarazi edo deia desbideratuko da: polizia, anbulantzia, suhiltzaileak eta abar.

### HERRITARREN SEGURTASUNA ETA GUARDIAKO EPAITEGIA

#### UDALZAINGOA

Elexalde kalea 1  
944 008 021  
udaltzaingoa@leioa.net

#### ERTZAINZA POLIZIA AUTONOMIKOA

Larrauri-Mendotxe bidea 18 (Erandoio)  
946 079 076

Aiboa Kalea, 13 (Getxo)  
944 063 420

#### GUARDIAKO EPAITEGIA

Foruen kalea 10 (Getxo)  
946 023 965

### GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK

Inork ez du zu mehatxatzeko, iraintzeko edo mintzeko eskubiderik. Gertuko senide batek ere ez du eskubiderik zu sexu-harremanak izatera behartzeko, jendaurrean umiliatzeko, dirua eskuratzea kontrolatzeko eta lagunekin edo senideekin harremanak izatea eragozteko.

- Erasoren egin badizute edo laster egingo dizutela uste baduzu, eska egiozu poliziarri edo epaitegiari babes zaitzatela.
- Tratu txarrak jasan badituzu edo jasateko beldur bazara, poliziarri ere laguntza eskatzeko aukera duzu, zuzenean edo zure konfiantzako pertsona baten bidez.
- Lesioak izan badituzu, joan zaitez osasun-zentro batera. Bertan artatuko zaituzte. Lesioen jatorria azaldu eta sendagilearen txostenaren kopia bat eskatu ahal izango duzu. Txostena oso erabilgarria gertatuko zaizu.
- Lesiorik ez baduzu ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuei laguntza eskatzeko aukera duzu. Gizarte Zerbitzuetan babestu egingo zaituzte, zure eskubideen berri eman eta zure egoeratik ateratzen lagunduko dizute. Honako hau eskainiko dizute: laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, laguntza ekonomikoa, aldi baterako ostatua.

Genero-indarkeriaren biktima gisa aitortzen dituzten eta baimenik ez duten emakume atzerritarrek bizileku-eta lan-baimena lortu ahal izango dute salbuespenezko inguruabarrengatik.



# 6

## BESTELAKO INFORMAZIOA

### GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMARENTZAKO ARRETA- TELEFONOA



**900 840 111**

Doakoa, konfidentziala, egunean 24 ordu, zazpi hizkuntzatan. Biktima diren emakumeei laguntza emozionala, informazioa eta orientabidea ematen diete.

### ANDRAK

#### (LEIOAKO ANDREEN ELKARTE SOZIOKULTURA)

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei entzuteko zerbitzu bat dute, 688 805 766 telefono zenbakira deituta, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:00etara.



**ANDRAK**

### DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA IZATEKO ESKUBIDEA

Pertsona guztiek dute, beren administrazio-egoera edozein dela ere, justizia-auzitegiara jotzeko eskubidea.

Pertsona guztiek prozedura judicial batean beren interesak defendatzeko aukera izan dezaten bermatze aldera, nahiz eta hori ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez izan, Orientazio Juridikoko Zerbitzuak (OJZ) arreta eskaintzen eta informazioa ematen die doako laguntza juridikoa lortzeko.

Eskubide hori eskuratu ahal izateko, interesdunak baliabide ekonomikorik ez duela frogatu beharko du.

### ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUA (OJZ)

Barroeta Aldamar, 10, behe solairua (Bilbao)  
944 016 712

**[www.justizia.eus/justicia-gratuita/presencial](http://www.justizia.eus/justicia-gratuita/presencial)**



# BESTELAKO INFORMAZIOA

## **DISKRIMINAZIO-EGOERAK SALATZEKO BALIABIDEAK**

### **ARARTEKOA - HERRIAREN DEFENDATZAILEA**

Ustezko diskriminazio batengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko baten jardunarekin zerikusia duten kexei erantzuten die.

### **ARARTEKO**

San Vicente, 81° Albia eraikina (Bilbao)  
Hitzordua behar da: 944 234 409  
[arartekoa@ararteko.eus](mailto:arartekoa@ararteko.eus)  
[www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

### **ERABEREAN**

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatutako sarea da Eraberean, arraza-, etnia- eta nazio-jatorriengatik, sexu-orientazio eta -identitateagatik eta genero-identitateagatik diskriminazioaren aurka borrokatzeko.

Sarea osatzen duten erakundeak hauek dira:

**CITE- CC.00:** 944 243 424

**KALE DOR KAYIKO:** 691 674 414

**ALDARTE:** 944 237 296

**ERREZPETUZ:** 675 459 3 17

**NEVIPEN:** 946 526 989

[www.eraberean.eus](http://www.eraberean.eus)

## **SOS ARRAZAKERIAREN INFORMAZIO- ETA SALAKETA-BULEGOA**

Arrazakeriarengatik edo xenofobiarengatik, bai partikularrek, bai erakunde publiko edo pribatuek eragindako diskriminazio-egoeren biktima edo lekuko izan diren pertsoneri arreta eskaintzen die.



### **SOS ARRAZAKERIA - SOS RACISMO**

Lapurdi etorbidea, 7 – lonja (Bilbao)  
944 790 310





# 6

## BESTELAKO INFORMAZIOA

### DOAKO AHOALKULARITZA ETA ORIENTAZIO JURIDIKOA

#### A) FAMILIAREN, GENERO-INDARKERIAREN ETA ATZERRITARTASUNAREN ALORREKO AHOALKULARITZA JURIDIKOKO LEIOAKO ZERBITZUA

Familiaren, genero-indarkeriaren eta atzerritartasunaren alorreko aholkularitza juridikoko zerbitzua da, Leioan bizi diren guztiei zuzendua. Oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta egiten du lan, haiek bideratzen baitituzte kontsultak.

Zehazki, honako gai hauek hartzen ditu, besteak beste:

- Gai zibilei buruzko informazioa eta orientazioa ematea Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileei.
- Genero-indarkeriaren alorreko aholkularitza juridikoa.
- Familia-zuzenbideari buruzko aholkularitza.
- Atzerritartasunaren alorreko aholkularitza juridiko integrala.
- Erakundeekiko harremanak (laguntza juridikoa prestazioen kudeaketan, osasun-eskubideak, eskolatzeara...).

**GIZARTE ZERBITZUEN BIDEZ ESKATU BEHARREKOA (IKUS 8 OR.)**

#### B) AHOJKU SAREA - ATZERRITARTASUNAREN ALORREKO ARRETA JURIDIKOA

Eusko Jaurlaritzak Aholku Sarea izeneko Atzerritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa dauka, beren administrazio-egoerari eta atzerritartasunari buruzko araudirekin lotutako gaiei buruzko zalantzak argitu nahi dituzten etorkinentzat. Informazioa, orientazioa, aholkularitza eta zerbitzu espezializatueta bideratzea eskaintzen ditu.

Arreta juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoan gehien hitz egiten diren hizkuntzetan du itzulpen-zerbitzua.

Posta elektronikoaren bidez kontsultak egiteko aukera dago: **[asesoria@euskadi.eus](mailto:asesoria@euskadi.eus)**

Zerbitzuaren erakunde laguntzaileekin aurrez aurreko hitzorduak ere eskatzeko modua dago:

#### **GURUTZE GORRIA:**

Chavarri plaza z.g. (Getxo)  
944 950 229

#### **KOSMOPOLIS:**

Alangoeta, 8 (Getxo)  
688 605 551

#### **CC.OO CITE:**

Uribitarte, 4 (Bilbao)  
944 243 424

#### **CARITAS:**

94 402 00 99

# 7

## LEIOA HURBIL - LEIOA ZABALIK

Leioa Bilbo Handia eskualdean dagoen Bizkaiko udalerrria da. 8,6 kilometro koadroko hedadura du, eta 32.000 biztanle inguru ditu. Udalerrria Nerbioi-Ibaizabal itsasadarraren eskuinaldean, bokaletik gertu dago; iparraldean Getxo eta Berango ditu mugakide, ekialdean eta hegoaldean Erandio, eta mendebaldean Getxo eta itsasadarra.

Leioa hiru barrutitan banatzen da: Elexalde, Artatza eta Lamiako. Udalerrriak etengabeko hazkunde demografikoa eta urbanoa izan du, gune horietako auzoen artean oraindik sakabanatuta dauden biztanleak batzeko.

### HERRITARRENTZAKO ARRETA ZERBITZUA (HAZ)

Udalaren egoitza nagusia Elexalde auzoan dagoen udaletxean dago. Bestalde, Leioak, udal egoitza deszentralizatua du Gaztelubide bulegoan:

#### UDALETXEKO HAZ:

Elexalde auzoa, 1 / 944 008 000

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era

**Sac01@leioa.net**

#### GAZTELUBIDEKO HAZ: :

Langileria kalea, 202 / 944 646 722

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era

**Sac02@leioa.net**

Oporraldiko ordutegiak ikusteko (uda, Aste Santua, Gabonak):



<http://www.leioa.net/es/ayuntamiento/index/Tu+Ayuntamiento.html>

### INTERNET

Udal webgunea: [www.leioa.net](http://www.leioa.net)

Administrazio-izapideen eskuliburua eta udal baliabideei buruzko informazioa duen webgunea (udal bulegoak, ikastetxeak eta euskara, kultura eta gazteria, kirol-instalazioak eta gizarte-zerbitzuak):

<https://leioahurbil.leioa.net/es/map>

Leioako Udalaren gardentasun-ataria:

<https://leioazabalik.leioa.net/>

# 7

## LEIOA HURBIL - LEIOA ZABALIK

### GARRAIOBIDEAK

Loiuko aireportua (7 km-ra) eta Bilboko portua (2 km-ra) gertu daudenez, Leioa estrategikoki kokatuta dagoen lekua da. Metroak eta Bizkaibus-en errepide bidezko autobus-garraioko zerbitzuek garraio publikoko askotariko eskaintza ematen diote Leioari.



### BIZKAIBUS LINEAK

- A2151** Areeta - Parke Teknologikoa - Larrabetzu
- A2161** Bizkaia Zubia - EHU (Artatzagana)
- A3338** La Arena - Muskiz - Barakaldo - Areeta
- A3414** Bilbao - Getxo (Artxandako Tuneletatik)
- A3471** Getxo - Gurutzeta (Faduratik)
- A3472** Getxo - Cruces (Areetatik Irtenda)
- A3531** Leioa - Urduliz Ospitalea - Gatika - Mungia

Bizkaibus-en lineei buruzko informazio gehiago:  
<https://web.bizkaia.eus/es/web/bizkaibus/lineas>

### METRO BILBAO:

[www.metrobilbao.eus](http://www.metrobilbao.eus)



metro bilbao

### LEJOANBUS:

Leioak badu udalerrri barruko auzoak lotzen dituen autobus bat ere. Lineei eta maiztasunei buruzko informazioa lortzeko:

[www.lejoanbusa.eus](http://www.lejoanbusa.eus)







LELOA





**Leioa**  
UDALA-AYUNTAMIENTO

